

ZENBAT BURU

Iñigo Otaño

ERREPORTAJEA

Lehen Jaunartzea

GEHIGARRIA

Kale zuloatik
baserrira

BERBETAN

Roberto Altzarreka
Txandakako
Enpresa
Injinerutzako
arduraduna

KULTURA

"Dia Das Letras
Gallegas"
galiziarren jaia

BARREN


1999ko maiatzaren 7a
VII. urtea - 277. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Lehen Jaunartzea:
Fedea eta ilusioa bat eginik

"Ogi hau jaten duenak izango du bizia"



Zerain

BARNETEGIA

NOIZ:

Uztailaren 1etik 15era.
(Asteburuak barne)

NON:

Zeraingo aterpetxean.

PREZIOA:

37.900 pta. (mantenu osoa)

IZEN EMATEA:

DEBABE Udal euskaltegian
Nafarroa Enparantza, 2
Tel. 943 74 27 31
Maiatzaren 3tik 21erarte.



E-maila: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

ZELETA BARAZKIAK

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA



Kalitatezko produktuak ortutik mahaira zuzenean
ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa ELGOIBAR



IÑIGO OTAÑO

Fikzioa

Garbi dago guztiok daukagula fikzioaren beharra. Eta ez naiz ari zientzia-fikzioaz, egunero forma ezberdinetan irensten dugun edozein eratako fikzioari buruz baizik. Betidanik ezagutu ditugun ipuin, elezahar eta mitoak hein handi batean giza jakituria gordetzen zuten fikzioak dira. Gaur egun asko eta ezberdinak dira fikziora hurbiltzen gaituzten bitartekoak, zinea, liburuak, musika edo dantza esaterako geure burua fikzio batean barneratzeko modu bat besterik ez baitira askotan.

Behar honen zergatia azaltzeko egon daitezkeen arrazoiak aurkitzea ez da erraza, giza burmuinaren zoko guztiak ulertetik urrun baikabiltza oraindik, baina garbi dago denbora librea xahutzeko jarduera gustukoena zaigula filmeren bat ikustea edo eta libururen bat irakurtzea. Azken finean, geure burua beste bizitza batean sartzea eta epe labur batean behintzat nor garen ere ahaztea guztiok atsegin dugun zerbait da.

Noski, beharra dagoen lekuan berehala pizten da negozioa eta nonahi saltzen dizkigute hain beharrezkoak zaizkigun fikzio dosiak. Filmeek esaterako, guztia eskaintzen digun pantaila batean murgiltzeko aukera ematen digute, gozatzea beste esfortzurik eskatu gabe. Antzerkiak ordea beti eskatzen du zerbait gehiago, eskenategi erdi osatua zeure

buruan bete behar baituzu istorioa irensteko. Eta liburu bat irakurtzean berriz, eskenategia zuk zeuk asmatu behar duzu imajinarioaren laguntzaz, baina gelditzen zaizun hondarra ere iraunkorragoa da maiz.

Hala ere, munduko filme edo liburu guztiak ezingo dira inoiz subkontzientea egunero asmatzeko gai den fikzio kopurura iritsi. Ametsek osatzen duten bizitza paralelo horrek egunero eta etengabe entretenitzen du geure burua lo aurkitzen garen bitartean, ez dago hori bezalako filmerik.

Dena den, fikzioaren behar honekin zerkusia duen beste fenomeno bat aipatu nahi nuke. Telebista da ziuraski bizitza tokatu zaigun gizarte honen ordezkariarik garrantzitsuena eta egunero berari begira jartzen garen bakoitzean bere 'fikzioan' irensten gaitu. Horren arrunta eta ohizkoa bihurtu da ezen askotan ez dugu bereizten telebistan eskaintzen digutena benetakoa den ala ez. Ez dago alde handirik pelikula baten edo albiste


tegi baten aurrean dauzkagun jarreraren artean, guztia fikzioa dela ematen du askotan. Zerbait harritu edo beldurtzen bagaitu bakarrik jartzen gara pittin bat pentsatzen, baina berehala eskainiko digute aurrekoa ahazten lagunduko digun beste zerbait.

Hala ere, kuriosoena da telebistak gizartea erabat irentsi duela eta alderantzizko efektua ere ematen dela: telebistan agertzen ez dena gertatu ez dela dirudi. Niri kasik beldur gehiago ematen dit honek.

"giza burmuinaren zoko guztiak ulertetik urrun gabiltza oraindik, baina garbi dago denbora librea xahutzeko jarduera gustukoena zaigula filmeren bat ikustea edo eta libururen bat irakurtzea".

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarko

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansoa

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA

Jaunartzeko otoitza

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga


INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



IGOGAILUAK GORA eta BEHERA

Udalak ez omen du Udala Liburutegian igogailua ipintzeko asmorik edo proiekturik. Aurreko asteko BARRNEko GALDERAK saila irakurri zenutenok, ikusiko zenuten herritar bat kexu dela Liburutegiko eskailera igo ezinik egon delako.

Emakume honen kexa irakurri nuenean, duela gutxi ikusi nuen egotza bat etorri zitzaidan burura.

Kultur Etxeko hitzaldi gelatik behera nentorrela, hiru lagun gorantzako bidean sumatu nituen. Bi lagun arretan hirugarren bat zekarten eskailertan gora besoetan hartuta. Barruak buelta eman zidan 'ez dago deretxorik' pentsatu nuen. Edifizio berria izanda (10 urte inguru dira berri zutela), nola egin daiteke halako hankasartzea? Hau egin zuena sartu ote da harrezkero Kultur Etxean? Zeintzuk eman zioten bistobueno proiektuari? Beste askotan bezala, inork bere gain hartuko ez dituen galderak.

Eta leku faltarengatik izango baltiz, gaitzerdi. Keba, Kultur Etxea ezagutzen duzenok badakizue eskailerekin, pasiloek eta erdian dagoen hutsuneak etxearen hiru laurdenak hartzen dituztela. Zenbat metro kuadratu alferrik galduta. Baten faltan bi igogailurentzako tokia ere badago Elgoibarko Kultur Etxean.

Kultur Etxean sarri xamar ibiltzen garenok badakigu edadeko jendea mingaina kanpoan duela iristen dela hitzaldi gelara. Ostegunetan Plaza Merkatuan izaten naiz eta han ere quadro ederrak ikusten ditut eskailetan boltsak eta karritoak gora eta behera mugitu ezinik.

Lehen ere egin izan dira hainbat eskari eragozpen arkitektoniko hauek konpontzeko, baina ez dakit inork gaiari merezi duen seriotasunarekin heltzen dion. Amaitzeko, Udaletxea berritzeko obrak hasi berri dituzte. Akordatuko al da norbait igogailuaz?

I.L.

BARRNEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

KEXAK

◆ Gizon batek deitu digu honako kexa hau azaldu nahi duela-eta: **“Ermuaren Biden hasi eta Txarri-duna parean amaitzen den errepidearen zatia hautsez beteta dago** inguruko eraikuntza lanak dirrela-eta. Eguraldi ona egiten duenean bertatik pasatzen diren autoek hauts asko arrotzen dute eta **urarekin edo mangera pasatuz errepidea garbitu beharko lukete”**.

TXALOAK

◆ **Herritar batek liburutegiko langileak txalotu nahi ditu, norbaitek bertara igo ezin duenean liburuak hartzeko erraztasunak jartzen dituztelako.** “Nik problemak euki ditzut eta ezin izan naiz liburutegira ixo. Baina hango neskeri telefonoz eskatu eta eurak jeisten zien liburua edo baten batekin bialdu”.

◆ **Emakume batek Udaleko Hirigintza Saila txalotu nahi du herrian jarleku berriak ipini dituztelako.** “Astean zehar haur eta jubilatutako askok erabiltzen dituzte jarleku hauek eta oso garrantzitsua da egoera onean egotea”.



B AI, E S A N ?



Amaia Nogero

Kontsumitzaileen bulegoko arduraduna

Joan den apirilaren 28an sartu zen indarrean **“Ley de Propiedad Horizontal”** delakoa. Lege honek bizilagunen arteko harremanak arautzen ditu eta komunitateetan dauden arazoak konpontzeko bideak ezartzen ditu. Guk **Elgoibarko Kontsumitzaileen bulegoko Amaia Nogero**rengana jo dugu lege honi buruzko argibideak eskatzeko.

- **Zertan datza “Ley de Propiedad Horizontal” delako lege berria?** - Lege berri hau 1960ko izen bereko legearen ordeztatu da, eta bizilagunen komunitateak arautzeko balioko du.

- **Zer aldaketa ekarriko ditu?** - Aldaketa esanguratsua, ordaintzen ez duten bizilagunen inguruko araua da. Kasu hauetan komunitateko arduradunek abokatuengana jo behar izaten zuten, ondoren, prozesu judizial luzearekin eta garestiarekin jarraitzeko.

- **Herritarroei nola eragingo digu?** - Lege berriarekin “moroso”ei kobratzeko ez dugu abokatuengana jo beharko, eta prozesua azkartu egingo da. Bestalde, bizilagun batek ordaintzen ez badu, bileretan ezingo du boturik eman, etxebizitzaz aldatuz gero komunitateko idazkariari helbide berria eman beharko zaio honek oharrak jakinazteko. Era berean, etxebizitza saltzeko orduan, komunitatearen diru kontuei dagokion Estatuaren agiri bat aurkeztu beharko da, dokumento publiko eman aurretik.

- **Zein arazo izaten dira normalean bizilagunen artean?** - Gehienetan egiten diren kontsultak, igogailuen instalazioari buruzkoak izaten dira, bizilagun bakoitzak zenbat ordaindu behar duen, baimenak... Beste gai bat hutsik dauden etxeena da, hauek garbiketari, gastuei... dagokionez zein betebeharrak dituzten galdetzen dute. Oso modan dagoen hirugarren gaia “Vía Digital” delakoa ikusi ahal izateko antena jarritzekoa da, nork ordaindu behar duen, behar diren baimenak...


- **Nora aurkezten dituzte bizilagunek kexak?**

- Hasieran, Kontsumo bulegoan galdera zehatzei erantzuten diegu. Arazoa zaila izanez gero, “Cámara de la Propiedad” delakoaren laguntza jaso dezaketela adierazten diegu, gai hauetan adituak baitira.



ESKERTZA

1999ko maiatzaren 3an, 81 urte zituela hil zen
CONCEPCIÓN EGAÑA EIZMENDIren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola
hileta elizkizunetara agertu izana..



Behen Jaunartzea,

ILUSIOZ BETERIKO EGUNA

Maiatzarekin batera jaunartzeen garaia iritsi da eta zenbait neska eta mutil koskorrek, lehen aldiz hartuko dute jauna. Guztiek 3 urtetako kristau heziketa izan dute, apaiz eta katekisten laguntzaz, lehenengoz hartu behar duten sakramentu honen esanahiari buruz. Askoren iritziz Jaunartzeak erlijio kutsua galdu du eta festa sozial bihurtu da. Urteen joanak aldatuko ez duena ordea, haurren ilusioa da, jainkoaren eskuetan uzten duten ilusioa, alegia. Duela urte batzuetako jaunartzeetako ospakizunak eta gaur egungoak konparatu nahi izan ditugu.



Kristau heziketa

Eliza Katolikoan, haurrei kristau dotrina irakasteaz arduratzen dena katekista da. Berez, ez du inolako ordenazio berezirik, parrokoak edo elizako kargudunak hautatu ohi ditu katekistak eta haren izenean betetzen dute beren zerbitzua. Elgoibarko Parrokiako katekistekin hitz egin dugu jaunartzearen esanahiari buruz. “Igandetako meza, kristau fededunentzat jairik eta bilerarik nagusia da. Jaunartzearen helburua, haurrak ere, domekako mezetan edo eukaristian parte hartzera gonbidatzea da. Baina Lehen Jaunartzea egin aurretik hiru urtetako katekesi saioak ematen dizkiegu. Parrokoarekin bilerak egin ondoren, ostiralero biltzen gara haurrekin kristau heziketa lantzeko. Jaunartzearen esanahia, eguneroko bizitzarako balio dezaketen Jesusen bizitzako pasarteak, eta meza zer den irakasten saiatzen gara”. 3 urte irauten ditu kristau ikasbideak, urte bakoitzean katekista bat arduratzen da liburu baten bidez eta bideoekin haurrak jauna hartzeko prestatzeaz. Lehen penitentzia edo aitortza ere Jaunartze eguna baino aste bete lehenago egiten da. “Lehen astero-astero egiten zen aitormena, gaur egun, berriz, behin eginda nahikoa da”.

Ospakizun xume eta hezitzailea

Lehen Jaunartze eguneko euka-



ristia edo meza, Pazko aldiko beste igandetako bezalakoa izaten da. Hori bai, haurrek leku bereziagoa izaten dute mezetan eta gurasoentzat ere tokia gordetzen da. Kristau ikasbideko arduradunen eta Elizbarrutikoen iritziz, “Jaunartze eguneko meza aurreko igandeetan egin dugunaren eta ondorengo igandeetan egingo dugunaren antzekoa da. Gure nahia, Lehen Jaunartzearen inguruan egiten den jai guztia, ahal denik eta era xume-nean eta hezigarrienean egitea da. Lehen Jaunartzearen inguruan dau- den gainerako gauzak eta ospakizunak: opari garestiak, luxuzko bazkari erraldoiak, argazki albuak eta abar, ez ditu elizak erabakitzen, familien esku daude. Jai sozial moduan anto-

latzen denean ordea, erlijio zentzua ahazteko arriskua dago”. Parrokoaren iritziz, haurrek kristau heziketa egokia jaso dezaten gurasoek dute azken hitza, “haurrei protagonismo handia ematen zaie gaur eguneko ospakizunetan. Bizitzan behin bakarrik egiten denez, festa giroan eta alaitasunez egitea zilegia da, baina zertarako balio duen ahaztu gabe”.

Gurasoen protagonismoa

Egun honetako ‘protagonista faktikoak’ gurasoak dira. Parroko eta katekisten hitzetan, “beste alor askotan bezala gurasoek erabakitzen dute, Lehen Jaunartzeak zer jarraipen izango duen, Jaunartzea egin eta gero

haurra kristau ikasbidera bidaltzen ahaleginduko diren, haurrei igandetan elizara joaten lagunduko dien ala ez... Azken finean, kristau fedek familiako bizitzan zer leku izango duen. Arrazoi hauetan oinarrituz, sinismen eskaseko gurasoek edo bere burua kristautzat ez duten askok bi aldiz pentsatu beharko lukete seme-alabek Lehen Jaunartzea egin aurretik. Besteek egiten dutelako edo itxurakeriagatik Jaunartzea egiten duten umeen gurasoek ez dute ospakizunaren zentzua ulertzen. Jaunartzea ez da egun bateko ospakizuna, fedea eta ilusioa jainkoaren eskuetan uzten dugun lehen eguna da, fede katolikoari ongi etorria egiten diogu". Katekistek adierazi digutenez horrelako zenbait kasu badaude, "urtero azaltzen dira Bataioa eta Lehen Jaunartzea batera egiten dituzten haurrak, jaunartzea egin behar ez duten haurrek lagunaren inbidia izaten dute eta guraso askok beren seme-alaben ilusioa betetzeagatik Bataiatzea eta Lehen jaunartzea egitea erabakitzen dute, dena egun berean".

Behengo jaunartzeak gogoratzuz

Aurten 53 haurrek egingo dute Lehen Jaunartzea. Lehen Madalako elizan ere egiten ziren, baina gero eta haur gutxiago dagoenez, aurtengo haurrek San Bartolome Parrokian eta bi taldetan banaturik egingo dute Jaunartzea, batzuk 11:00etan eta besteak 12:30ean. Katekistek gogoan dutenez, "garai batean askoz haur gehiago zeuden eta maiatzeko asteburu guztietan


"Jaunartzea, fede katolikoari ongi etorria egiten diogun lehen eguna da".

egiten ziren Jaunartzeak". Lehen bi jaunartze egiten ziren, 7 urterekin Lehen Jaunartzea eta 11 urterekin Jaunartze nagusia (Comunion Solemne). Orain dela 35 urte ordea, bi Jaunartzeak batzea erabaki zen. Ospakizunaren oinarritzko idea gehiegi

aldatu ez den arren, Lehen Jaunartzearen inguruan egiten den jai guztia ezberdina da. "Lehen ere garrantzi handiko jaia zen eta argazkia ateratzeko baserritarrak ere inguruko herrietara joaten ziren. Garai haietan ez ziren argazki gehiegi ateratzen baina Lehen Jaunartzeko argazkia ia derrigorrezkoa zen. Bazkaria ere egiten genuen, baina familiako kide gutxiago elkartzen ginen eta bazkaria apalagoa izaten zen". Jantziei dagokienez, neskek nobia jantzia erabiltzen zuten lehen, baina gehiegikerietan ez erortzeko tunika zuri batez janztea erabaki zuen Elizbarrutiak. Mutikoek, aldiz, kalerako jantziak jantzen dituzte. "Inguruko beste herri batzuetan habitoak edo kaleko jantzi dotoreak jantzen dituzte, baina hori herri bakoitzeko ohituren menpe dago". Lehen Jaunartzearen elizkizuna zertxobait aldatu da, gaur egun apaiaren ondoan jartzen dira haurrak eta ez daukate besoak gurutze bat eginez egon beharrik. Bestalde, gaur eguneko haurrak lehengoeekin konparatuz, oso espabilatuak direla aipatu digute katekistek, "9 urte bakarrik izateko gehiegitxo dakite, eta kontu handiz irakatsi behar zaizkie gauzak. Guraso edo aitonamona fededunak dituztenak nortzuk diren ere erraz nabari daiteke".



Protagonisten ahotan



Asier Lizarralde

Lehen Jaunartze eguneko protagonistek, ilusioz eta urduritasunez itxaroten dute lehen aldiz Jauna hartuko duten eguna. Asier Lizarralde eta Mikel Arosak 9 urte dituzte eta datorren igandean, maiatzak 9, Lehen Jaunartzea egingo dute. Kristau ikasbidean ikasten dutenari eta Jaunartzeari buruzko galderak egin dizkiegu. Asierrek kontatu digunez, "Jesuskristo nere jauna, Gure Aita, Gurutze Santuaren eta beste gauza mordo bat errezatzen ditzugu, liburu bat irakurri, abestu eta batzuetan biduak ikusten ditzugu eta hurrengo egunian katekistek ikusitxakuari buruzko galderak itxen dizkigute. Ez dala inor jo bihar, zintzua izan bihar dala eta holako gauzak ere ikasten ditzugu". Jaunartzea zertarako egiten den eta egun horretako helbururik garrantzitsuena bazkari itzela egitea eta opariak jasotzea al den galdetu diegu. Honakoa izan da Mikelen erantzuna: "Jaunartzia jauna hartzeko itxen da eta egun horretako mezan abestu eta errezau itxen da. Gero bazkaltzera juten gera familixakuekin eta erregaluak ere egoten diaz, baina guk jauna hartzearen itxen dou komunixua. Jauna hartzeko gogo haundixa dakat, batzuk gozua dala esaten dabe eta beste batzuk ezetz, baina amak gozua dala esan dia eta irrikitan nao probatzeko. Gero domekero pentsatzen dot mezetara jutia. Lehen ere juten nitzan baina ezin naban Jauna hartu".



Mikel Arosa

Izaten al duzu arazorik bizilagunekin?



MARI FRAN ARRILLAGA
54 urte, etxeoandrea

Normalian bastante ondo arreglatzen gera, ez dao gure portalian ez dao pagatzen ez dabanik. Baina nik uste dot etxe danetan daola pegak ipintzen ditxuan bateron bat.



ANTONIO GOMEZ
51 urte, peoia

Ez, denak ongi konpontzen gara. Sei bizilagun gaude eta berrikuntzak egin ditugunean bileretan ados jarri gara bakoitzak ordaindu behar zuenari buruz.



JESUS M. AIZPURUA
39 urte, modelista

Arazoren bat izan dut baina gehienetan ongi konpontzen naiz. Beharrezkoa da bizilagunekin ongi konpontzea. Gu bi bizilagun baino ez garenez da problemarik izaten.



M. DOLORES FERNANDEZ
38 urte, fabrikako langilea

Ez dut arazo handirik izan. Baina, etxepean berrikuntzak egiteko premia dago, bizilagun batzuk nagusiak dira eta ez dute horretarako erraztasunik jartzen.



ISABEL ELORZA
41 urte, estetizista

Ez, inoiz ere ez. Komunitateko gastuak helbideratu itxen ditxugu eta guri behintzat ez jaku inoiz tokau kajero egon geranian jendia ordainketetan atzeratzia.



GUILLERMO CABALLERO
60 urte, jubilatua

Bai. Gasa sartu nahi dugu, baina etxepean jarri nahi ez duten bizilagunak daudenez beste guztiak izorratu behar gara. Tabernetako zaratarekin ere izaten da arazorik.



Anchústegui s.a.
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
83 P. K. - 20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92
Faxa: 943 74 37 11

Biltegia:
Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71



Jesus Mª Gabilondo Urain
Delineatzailea - Topografoa
1397. kolegiatua

Erreformatik · Etxebarruko Lanak · Lan Topografikoak
Ubitarte, 4- 5. esk. · Tel: 943 74 45 99 · Faxa: 943 74 18 91

 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

Gaundi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.
Zatoz informazio eske!



LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11

ISPILUARI BEGIRA



Alfonso Juiz

DOÑA MERCEDES-eko okina

- Etxean jaten duzun ogia.** Txapata.
- Zerk ematen dio gatza bizitzari?** Eguneroko detaile txikiak.
- Ogiaren azala edo mamia?** Azala, zenbat eta tostatuagoa hobea.
- Eta pertsonengan?** Alderantziz, barrukoa da garrantzitsuena.
- Ogitartekorik gustukoena?** Tortillarena edo urdaiazpikoarena.
- Zoriontasuna lortzeko zer osagarri nahastu behar dira?** Gustuko gauzak egiteko denbora librea.
- Esnea zopekin ala kroasantarekin?** Zopekin hobeto.
- Beste zein lanbiderekin gustatuko litzaizuke ogia irabaztea?** Eskuekin zerbait sortu behar den edozein lanbiderekin.
- Usain bat?** Usain suabeak, larrosa naturalarena adibidez.
- Zein zine izar jango zenuke ogiaratean?** Marivel Verdú.
- Nori oparituko zenizkioke opiltxo egin berriak?** Edonori.
- Zein izan da gizakiaren lorpenik handiena?** Oraindik ikusteko dago, arazo asko baitaude konpontzeko.
- Zerk ateratzen dizkizu koloreak?** Egoera batek eragin ezberdina izan dezake egunaren arabera.
- Zein gaitasun izan nahi zenuke?** Gitarra jotzen jakitea.
- Zortean, ahaleginean edo kasualitatean sinisten duzu?** Ahaleginak, zortea eta kasualitatea lortzen laguntzen du.
- Esan al dizute inoiz ogi koxkor bat baino hobea zarela?** Ez nago horrelakoak entzutera oso ohituta.
- Lan honek duen alderik onena?** Eguneroko erronka, inoiz ez da jakiten nola irtengo diren ogiak.
- Eta txarrena?** Laneko ordutegia.
- Zer irakurri nahi zenuke biharko egunkarian?** Gerra guztiak amaitu direla.
- Gaur egungo hurrek ogi bat besapean dakartela pentsatzen al duzu?** Bai. Gehienek zorte hori dute.
- Zerbait ospatzeko erarik onena?** Familiarekin edo lagunekin zerbait egitea.

Lan eskaintza

Elgoibarren HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA suspertzeko

DINAMIZATZAILE BAT BEHAR DA

ESKATZEN DA:

- ✓ Euskara maila ona
- ✓ Harremanetarako dohaina
- ✓ Antolakuntzarako eta gestiorako gaitasuna
- ✓ Adina: 25-45 urte bitartean

BALORATUKO DA:

- ✓ Elgoibartarra izatea
- ✓ Esperientzia sektorean edo euskalgintzan
- ✓ Curriculumak

ESKAITZEN DA:

- ✓ Egun osoko kontratua urtebeterako (luzatzeko aukerarekin)

Curriculumak jasotzeko azken eguna:
maiatzaren 21a

Elgoibarko Izarra · Ubitarte, 4 · 20870 Elgoibar

Informazioa: 943 74 16 26 (Imanol)

PROIEKTUAREN ERAGILEAK



EUSKALTEGIAK

BABESLEA



EUSKARA BATZORDEA

Artetxeko Bizilagunen Batzordeak auzia aurkeztu du Urruzunoko bide berriaren aurka

Udalak proiektuari buruzko informaziorik eman ez izana salatu dute

Artetxeko Bizilagunen Batzordeak Urruzunoko obren aurkako protestekin jarraituz, joan den ostegunean, apirilak 29, prentsaurrekoa egin zuten. Udalak, Babes Ofizialeko Etxeen eta Urruzunoren artean egiteko asmoa duten bideari buruzko informaziorik eman ez izana salatu zuten. Beraien ustez, bide horren helburu bakarra Madalan eraikiko dituzten etxebizitzetxei irteera ematea da. "Beraien nahia Madalatik pasatzen diren ibilgailuek irteera bat izatea da eta ez dira ohartzen gure bizitza kalitatea izorratzen dutela. Bide hau eginez gero, gure portalen aurretik pasatuko litzateke".

Bestalde, adierazi zuten bidea eraikitzeak ez diela beraiei bakarrik kalte egiten. "Donostia eta Bilbo artean doan trenean ere eragingo luke, eta garraio hau erabiltzen duten guztientzat izango litzateke kaltegarria". *Eusko Trenbideak* erakundeak, obrak hasi eta egun gutxitara gelditzeko agindua eman zuen, trenbidearen paretik pasatzeaz gain Urruzunoko bidea bere lu-



Artetxeko bizilagunak alderdi politikoetako ordezkariekin eta erakundeekin bilduko dira.

rretan sartzen zelako, bere zabalera dela medio. Honela, bertan egiteko asmoa duten bigarren karrila egiteko aukera galduko lukete. Karril honek bi tren une berean eta bakoitza bere norabidean pasatzea ahalbidetuko luke. Hori dela-eta, Udaleko arduradunek bide berria norabide bakarrekoa izango dela adierazi dute.

Elkarrizketak

Artetxeko Bizilagunen Batzordea denbora asko ari da bide hau eraikitzearen aurka lanean. Bide honek Er-

muaran Bide Elgoibarko irteerarekin lotuko luke, Melitongo zubiaren bidez. Trenbidearekiko paralelo eraikiko luketenez kalteak Artetxeko etxeetako bizilagunak izango dira, beraiek aisialdirako duten lurra desagertuko bailitzateke. Ezadostasuna azaltzeko, Udalera alegazioak aurkeztu zituzten, baina Udaleko teknikariek ez zituzten onartu eta gainera, ez zieten adierazi atzera bota zituztela. Honetaz gain, auzi bat aurkeztu

dute, Melitongo zubiaren inguruan tunel bat eta Albitxurira bide berri bat egiteko dagoen asmoaren aurka, izan ere, obra hauek beste bidearekin lotura estua daukate. Bestalde, Artetxeko bizilagunek alderdi politikoetako ordezkariekin biltzeko asmoa daukate beraien ezadostasunak azaltzeko, bai hauteskundeon aurretik eta baita ondoren ere. Era berean, herriko erakundeekin eta elkarteekin hitz egin nahi dute arazo honen inguruan beraien elkartasuna lortzeko asmoz.

HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN

- Gazteentzako ikastaroak
- Enpresa munduko profesionalentzako ikastaroak
- Etorkizuneko profesionalentzako ikastaroak
- Hizkuntza irakasleentzako ikastaroak

HEZKUNTZA JARDUNALDIAK

Maiatzaren 8an, larunbata
Ordua: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara
Donostiako M^a Cristina Hotelean

EAS - VELE han izango da.

Zatoz zu ere!

EAS - VELE

San Martzial, 39 - 1C
20005 Donostia
Tel: 943 42 80 60
Faxa: 943 42 14 79

Xabier Obesoren margo erakusketa inauguratu zuten apirilaren 30ean

Joan den ostiralean, apirilak 30, inauguratu zuten Xabier Obeso artista oreretarraren margo erakusketa Kultur Etxean. Elgoibarren ikusgai izango diren lanak azken bi urteetan egindakoak dira. Guztira 25 lan inguru izango dira erakusketa gelan. Surrealismoa da bere koadroetan erabiltzen duen estiloa eta ikutu erromantikoz paisajeak eta itsasoa irudikatzen ditu gehienbat. Bakarka zein taldean egin ditu



orain arteko erakusketak Obesok eta artearen inguruko zenbait lan ere idatzi ditu. Besteak beste, *Bilboarte* Argitalerakaleratutako Euskal Margolariak izenekoa. Bere lanak ikusi nahi dituenak erakusketa zabalik izango da maiatzaren 9ra arte, astelehenetik larunbatera arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.



Gestio Eskolari buruzko hitzaldia

Joan den ostegunean, apirilak 29, Gestio Eskolak bere aurkezpen hitzaldia egin zuen eskolako areto nagusian. Aurkezpenean bi ikasle enpresari bat eta eskolako zuzendaria izan ziren, interesatuei Gestio Eskolak eskaintzen dituen aukerak azalduz. Eskola honek Gestio Tekniken Goi Mailako Titulua ateratzeko eta Enpresen Zuzendaritza ikasteko aukera eskaintzen ditu ikasketak metodo berritzaileen bitartez. Zentroko datuen arabera, bertatik atera den bigarren promozioiko ikasle gehienak lanean daude, ikasten jarraitu dutenak izan ezik. Bestalde, 1997-98 ikasturteko ikasle ohiek egindako praktikak positiboak izan direla adierazi zuten.

Oliadura Parrokian, maiatzaren 23an

Maiatzaren 23an gaixoen oliadura, (unción) egingo da eguerdiko 12:30eko mezan. Oliadura adinekoei eta gaixotasun larriren bat izanik ere, elizara joateko gai diren eliztarrei zuzenduta dago. Joan nahi dutenek maiatzaren 13a baino lehen eman behar dute izena Parrokian (943 74 08 42).

Jaiotzako urrezko ezteien ospakizuna

1959an jaio eta aurtten 50 urte bete dituzten elgoibartarrek, beraien eguna ospatuko dute maiatzaren 22an, zapatua. Eguerdiko 12:00etan meza izango da eta ondoren bazkaria Herri Gain jatetxean. Jai honetan parte hartu nahi dutenek arratsaldeko 943 74 21 45 telefonora dei dezakete.

Udalak herriko obrak azkartzeko brigada kontratatu du

Elgoibarko Udalak igeltsaritza enpresa bat kontratatu du herrian ahalik eta azkarren egin beharreko lanen ardura hartzeko. Beraien eginbeharra medio edo giza baliabide faltagatik denbora luzean egin gabe dauden lanak burutzea izango da. Udalak eta *Ipintza* SAL elkarteak sinatutako akordioaren arabera, herrian egin beharreko lanen zerrenda prest dutenean Udaleko arduradunek enpresakoei aginduko diete konponketak ahalik eta azkarren egitea. Brigada honek *Ipintza* SAL enpresak azpikontratatu hiru langile izango ditu eta egin behar izango dituzten lehen lanak hauek dira: Juan Mugerza kaleko desagreak konpontzea, San Roken, autopista gaineko zubian dagoen zuloa tapatzea, San Roke kaleko 28 eta 30 zenbakien arten dagoen zementuzko egituraren teilatua garbitzea, Garagarza erloju dendaren pareko jardineria aldatzea eta Plaza txikian jardinerak jartzea, zuloak konpontzea eta Leku Ederren 2 pibote ipintzea.

Demaseko sugea!

Bitxikeriak ere gertatzen dira Elgoibarren eta horren adibidea da aste honetan bertan pasatutakoa. Joan den astelehenetan, hilak 3, susto galanta hartu zuen Roberto Merino kale-garbitzaileak. Izan ere, eguneroko garbiketa lanak egiten ari zela, Ikastola azpian dagoen aparkalekuko sasiaren artean, metro bateatik gorako sugea aurkitu zuen. Sekula horrelakorik ikusi gabe zegoen eta ikaraz, kolpe batzuk emanda akabatu zuen. Robertok esan digunez, berriz horrelako sustorik ez hartzea espero du.





RUBEN ISASI MARTINEZ

IU - EBko alkategaia



- ALDERDI POLITIKOA:** Izquierda Unida- Ezker Batua
ADINA: 41 urte
JAIOTERRIA: Madril
IKASKETAK: Geografia eta Historiako ikasketak
LANBIDEA: Ostalaritza
EGOERA ZIBILA: Ezkondua
ZALETASUN BAT: Pintura, literatura eta musika
LIBURU BAT: "Cien años de soledad"
KIROL BAT: Mendizaletasuna
JANARI BAT: Makailua

- ◆ **Elgoibarren zer dago faltan? eta zer sobran?**
 - Espazioa falta zaio elgoibarra. Sobran, berriz, zarata, kutsadura eta trafikoa dauzka, baita herri erditik pasatzen den errepidea eta Deba ibaiko zaborra ere.
- ◆ **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? eta zein izkutatuko?**
 - Guztia erakutsiko nioke, ona eta txarra. Agian kanpotar batek gauza txarrentzat irtenbideren bat emango liguke.
- ◆ **Defini ezazu zure burua bi hitzetan.**
 - In-posiblea.
- ◆ **Zein da azken aldian entzun duzun berririk onena?**
 - Berrri ona da, joan den irailetik biolentzia politikoa zerikusia duten heriotzen inguruko albisterik ez izatea.
- ◆ **Aukera emango balizute zer aldatuko zenuke zure bizitzan?**
 - Naizen bezalakoa izanda gustura nago.
- ◆ **Zein egunkari irakurtzen duzu?**
 - El Mundo, El Correo, Gara,... informatuta egotea gustatzen zait.
- ◆ **Norekin emango zenituzke pare bat ordu hizketan?**
 - Zerbait esateko daukan edonorekin.
- ◆ **Zein da gehien baloratzen duzun eskubidea?**
 - Bizitarako eskubidea, bera gabe ez baitago beste eskubiderik.
- ◆ **Erretzailea al zara?**
 - Ez.
- ◆ **Praktikatzen al duzu kirolik? zein?**
 - Ez dut denbora libre askorik eta daukadan apurra beste gauza bartzutarako erabiltzen dut, jarduera artistikoetarako adibidez.
- ◆ **Erabiltzen al duzu telefono mugikorrik?**
 - Ez, ez daukat.
- ◆ **Etxeko lanik egiten al duzu? zein?**
 - Bai. Lan guztiak egiteko ardurak etxekoen artean banatzen ditugu.
- ◆ **Emaiguzu arrazoi bat ekainaren 13an zuri botoa emateko.**
 - Bat bera ere ez. Botoa pertsoneri ematen zaien arren, nik ez dut niretzat eskatzen, nire alderdiarentzat baizik. Hau da, proiektu politiko berritzaile batentzat.

Legealdirako programa

- Udal argi baten aldeko borroka egingo dugu, herritarren partehartzea eta informazioa erraztuz; alkatetzaren eta gobernu batzordearen ekintzen fiskalizazioaren bidez.
- Lur gehiago lortu nahi dugu. Horretarako Udalak ez dio lur publikorik inori emango ez eta berarekin espekulatuko ere. Edozein eraikuntzarengatik Udalarik dagoen %10 garaje, etxebizitza... bidez kobratzea proposatzen dugu, lur publikoa gehitzeko.
- Auzoetara iristeko bideen konponketa, batez ere Urasandi auzorakoa. Oztopo arkitektonikoak kentzea ere

eskatzen dugu, ezinduk herrian askatasunez ibil daitezen.

- Etxebizitzen inguruan daukagun iritzia honako hau da: etxebizitza bat izatea oinarritzko eskubidea dela uste dugu, ez dugu espekulazioa onartzen. Sektore publikoak ezin ditu etxebizitzak eraiki eta ondoren alokairuan eskaini, benetan etxe baten beharra duenari.
- Aukeratu beharreko beste gaien artean zerbitzu publikoak hobetzeko obren beharra, liburutegi duin bat edo ordaindu ezin dituztenei kirol zerbitzuak doan ematea azpimarratuko genituzke.

MAIATZAK 14, OSTIRALA

19:00 Jaien hasiera. Txafliu jaurtiketa eta Galiziako jakien dastaketa.

22:30 *D'Camara* taldearen saioa.

MAIATZAK 15, LARUNBATA

10:30 Txafliu jaurtiketa.

12:00 *Dragons Vermellos Gaita Taldearen* kalejira.

13:30 *Cocktelera* taldea.

18:00 Galiziako jaki tipikoen dastaketa Herri Eskolan.

19:30 *Dragons Vermellos Taldearen* kalejira Elgoibarko kaleetan. Ondoren Plaza Handian emanaldia.

20:00 *Cocktelera* taldea.

23:00 *Cocktelera* taldearekin berbena .

MAIATZAK 16, IGANDEA

11:30 *Udal Txistulari Taldearen* eta *Dragons Vermellos Gaita Taldearen* diana.

12:15 *Haritz Dantzari Taldekoen* ongi-etorria *Gaita Taldeari* Plaza Handian.

12:30 Meza, hildako galiziar guztien omenez.

13:15 *Dragons Vermellosen*, *Haritz Dantzari Taldearen* eta *Udal Txistulari Taldearen* saioa Herri Eskolan.

14:30 Bazkaria Galiza Etxean herriko agintariekin.

18:00 *Dragons Vermellos* taldearen agurra.

Roberto Altzarrekak 32 urte ditu eta momentu honetan Erreminta Makina Institutuko Txandakako Enpresa Injinerutzako arduraduna da. Jaiotzaz eibartarra den arren, Elgoibarren bizi da. Gainera, duela 6 hilabete Elgoibarren erroldatzea erabaki zuen. Haritz dantzari taldeko kidea izandakoa ere bada. Gure artera Txandakako Enpresa Injinerutza ikasketei buruz hitz egiteko ekarri dugu. Urte bukarran irtengo baita ikasleen lehen promozioa. Roberto-ri, lehen hiru urteotako lanaren balorazioa eta ikasketak berritzaile hauen nondik norakoak azaltzeko eskatu diogu.

"Ikasketak enpresen beharren arabera orientatzen saiatzen gara"

– Zein da Txandakako Injinerutzan erabiltzen duzun metodologia?

- Unibertsitateko irakas-kuntza sistemak ez du beti injinerutza lanean emaitzarik hoberenak eman ditzakeen ikaslea hautatzen, sistema horretara egokien moldatzen den ikaslea baizik. Apunteen bidez ikasten duen ikasle txar batek lanerako izugarriko potentziala izan dezake, ikasketako moduak ezberdinak baitira. Baina Unibertsitateak bideak isten dizkie zenbait ikasleri. Horrelakorik gerta ez dadin, masifikazioa baztertu dugu, gehienez 30 ikasle onartuz, eta irakasleek jarraipen berezia egiten diete ikasleei. Ikasleak hautatzeko atari proba bat egiten dugu, ikasleen potentziala aurrez neurtzeko.

– Nola banatzen dituzue klaseak?

- 3 urtetako karrera da.

Goizetan enpresetan egiten dute lan ikasleek egun erdiko kontratuekin, eta arratsaldez klaseak izaten dituzte. Hurrengo urterako aste-bete lanean eta beste aste-bete ikasten egingo dituztela erabaki dugu.

– Zer ezberdintasun dauke injinerutza klasikoarekin alderatuz?

- Enpresak zer behar duen ikusirik eskariaren arabera langilea prestatzea izan da gure erronka. Gure ustez, injinerutza klasikoan perfil ikertzailea duten profesionalak prestatzen dituzte. Arlo teknologiko eta zientifikoak asko lantzen dituzte. Gu, berriz, enpresen errealtatea ezagutzen eta ikasketak enpresen beharren arabera orientatzen saiatzen gara.

– Beste inon ba al dago horrelako proiekturik?

- Bai. Alemanian Bigarren Gerra Mundialaren oste-

an hasi ziren injinerutza ikasketak eta enpresetan sartutako lanorduak txandakatzen. Proiektu hau martxan jartze-ko, CESI industria taldearekin jarri ginen harremanetan. CESI Frantziako goi-mailako ikasketen zentro bat da, eta beraiek sortutako metodologia jarraitzen dugu. Ikasketen titulazioa ere euren bitartez lortzen dugu.

– 3 urte pasatu dira, zein da egiten duzuen balorazioa?

- Oso gustura gaude eta gero eta argiago ikusten dugu proiektu honen funtsezko idea ona izan zela. Oraindik heldutasunera iritsi gabeko proiektua da, baina falta zai- gun bidea egiteko ilusioz beteta gaude. Gure erudia gorai- patzen duten eta irakaskuntzara aplikatzea eskatzen duten zenbait iritzi entzun dituzten azken aldian, eta hori bide onetik goazen seinalea da. Esaterako, UPVko injinerutza eskolako zuzendariak, irakaskuntzan aldaketa bat eskatu zuen, hizkuntzak ikasteari indarra ematea, irakaskuntza generalista izatea, mundua asko eta bizkor aldatzen baita, eta batez ere enpresen beharrei begiratzea, Txandakako Enpresa Injinerutzak jarraitzen dituen premisa berberak segitzea, alegia.

– Lehenengo promozioiko ikasleak zer etorkizun izatea espero duzue?


- Urrian irtengo da lehen promozioa. Ia denak egun erdiz lanean dauden enpresek kontratatzea espero dugu, enpresek euren balioaz jabetzeko aukera izan baitute. Beste enpresaren batean lana topatu behar dutenek, berriz, esperientzia bereganatu dute eta enpresa bat zer den ikasketako aukera izan dute.

ROBERTO Altzarreka

BESTEAK ESANA

"Langilea eta konstantea da, ingurukoontzat gauzak errazagoak izan daitezen laguntzen digu."

JOSETXO GUTIERREZ, irakaslea.



APIRILEAN

●●●● JAIO TAKOAK ●●●●

● Aitana Fernández González
(Apirilak 13)

● Nerea Bastida Agote
(Apirilak 13)

● Ane Egaña Urrutia
(Apirilak 20)

● Nagore Rodríguez Arriola
(Apirilak 22)

● Mikel Etxaniz Urbiola
(Apirilak 24)

● Ana Zubiaurre Iriondo
(Apirilak 28)

●●●● EZKONDUTAKOAK ●●●●

● Miguel Angel Vela Blazquez
eta Ana Fernandez de Jauregi
Bernedo (Apirilak 10)

● Eulogio Mancebo Iranzo eta
Trinidad de las Mercedes Fer-
nandez Morillo (Apirilak 17)

● Pedro Blanco Sanchez eta
Manuela Calleja Lopez
(Apirilak 17)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

● Marina Recio Ayestaran,
85 urte (Apirilak 25)

● Joaquina Felix Mansilla,
82 urte (Apirilak 26)

Francisco Arriola Arriola

(1894-1958)



● 1894ko urlarrilaren 29an jaio zen Gelatxo-Errota baserrian. Lau anai-arreba izan ziren familian, bera bigarrena.

● Gaztetako ikasketak San Lorentzoko eskolan egin zituen. Mutikotako urteak etxean lagunduz, lagun artean jolastuz eta esku pilotan pasa zituen.

● 14 urterekin, Eibarren denboraldi bat pasatu ostean, eskopetekiko zaletasuna hartu zuen. Gazterik sortu zitzaion ehizerako eta ibaian arrantzan aritzeko afizioa. hamaika amuarrairain edo harrapatu zuen San Lorentzoko errekan. Geroago, anaia zaharrenak, Baleriok, Gelatxo-Errotan zeukan torlojutegian hasi zen lanean.

● Kurutzetako, Madarixako... erromerietara joaten zen eta lagun artean, ohitura honi jarraituz pasa zituen solterotako urteak. Metalkuako Maria Zubiaurrekin ezkondu zen biek 24 urte zituztela eta 9 seme-alaba izan zituzten.

● Gelatxo-Errotako Paco bezala ezagunagoa zen gizon honek, jaiotzeko torlojutegia eskuratu eta bertan jarraitu zuen lanean. Eguneroko lanak amaitzen zituenean, San Lorentzora joaten zen lagun arteko tertulia egitera. Baratzean ere aritzen zen.

● Familia girokoa eta sinesmen handikoa zen eta gogokoa zuen Amabirjina Milagrosa.


● Gizon zintzoa eta zuzena zenez, askotan eramaten zuten herri kiroletara eta desafioetara kronometratzaile lanak egitera.

● Ehizan, probintziako, probintziarteko eta estatuko hainbeste sari eskuratutako Patxi Arriola bere biloba da.

● Jatorra eta alaia zen, lagun artekoa. Elgoibarko hileroko feriara etortzeko ohitura zuen eta herrian ezaguna egin zen.

● 1958ko apirilaren 8an hil zen 64 urte zituela.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



A

ste honetako argazkia **Jon Ortuostek** inguratu du gure astekarira. 1970ekoa da, eta bertan agertzen diren gazteak 'Makilak' taldekoak dira. Plaza Txikian jokatzen zen futbol txapelketan 3. postuan geratu ziren. Argazkia, Plaza Txikiko gimnasioan dago aterata eta beraietako batek garaikurra eskutan

duela agertzen dira.

Honakoak dira '**Makilak**' taldeko kideak. Goiko ilaran ezkerretik hasita: **Francisco Zarzuelo, Arregui "Planti", Ignacio Lher, Benito Aranberri, Mauxitxa, Ricardo Mujika, Edu Iriondo, Patxi Ajubita** eta **Jose Luis Sarriugarte**.

Beheko ilaran: **Manuel Leizabe, J. Ignacio Jauregi, Jon Ortuoste, Joseba Conde, Jose Luis Mujika** eta **Iñaki Fernandez**.



"Duatloian indarrak gordetzen eta banatzen jakin behar da"



Martin López de Larrainzar

- **Adina:** 33 urte
- **Kirolari gogokoena:** Bat aipatzearren Paul Tergat korrikalaria, baina ez daukat idolo berezirik.
- **Gogoko kirol edo zaletasunik?** Musika entzutea eta mendian txakurrarekin ibiltzea.

-Noiz hasi zinen duatloietan parte hartzen? - Hasieran maratoiak korritzen nituen. Mintxeta eraiki baino lehen Pista Beltzean entrenatzen genuen eta egunero korrika ibiltzea nahiko monotonoa zen. Triatloia eta duatloia berri entzun eta probatzea erabaki nuen. Kirol bat baino gehiago kirol bakar batean batzen dira eta oso gustura aritzen naiz, korrika egitea baino dibertigarriagoa da.

-Urtean zehar zein probatan parte hartzen duzu? - Urtariletik uztaileira Lehendakari Txapelketako duatloietan ibiltzen naiz, 9 proba izaten dira eta ahal dudan guztietan parte hartzen dut. Uztailetik aurrera, berriz, triatloiak hasten dira.

-Lasterketetan taktika berezirik erabiltzen al duzu? - Ez. Helburua ez da lasterketak irabaztea, nire buruaren aurka lehiatzea baizik. Pultso metro bat eramaten dut soinean, gehiegizko esfortzurik ez egiteko funtsezkoa baita. Minutuko pultsazio gehiegi ditudala ohartzen naizenean erritmoa gutxitzen dut. Izan ere, Kirol honetan erregularitasuna ezinbestekoa da, indarrak gorde eta banatzen jakin behar da.

-Korrika egitea edo bizikletan ibiltzea nahiago duzu? - Bietan eroso sentitzen naiz, baina duatloietan azken proba edo hirugarren zatia da

gehien gustatzen zaidana. Lehenengo korrikako proban asko kostatzen zait berotzea, orain dela sei urtetik arazo bat dut hanka batean, medikuek ere ez dakite zer izan daitekeen, eta ongi berotzen den arte arazoak ematen dizkit.

-Zein da duatloia zati zati? - Bizikletan igo beharreko aldapak. Askok pisatu ez arren kostatu egiten zait aldapak igotzea. Korrika ibiltzetik bizikleta gainera egiten den aldaketa ere nahiko gogorra da eta entrenatzea komeni da, muskulo ezberdinek egiten baitute lana proba batean zein bestean eta gorputzak asko igartzen du.

-Zein izan da egin duzun probarik gogorrena? - Dudarik gabe Zarauzko triatloia. 2'5 km igerian, 85 km bizikletan eta 20 km saltaka dira egin beharreko lanak. Bi aldiz korritu dut eta aurten ere badut parte hartzeko asmorik. Nire helburua 5 ordu azpitik egitea izango da, baina ez badut lortzen ez da ezer gertatzen, nire buuruari jartzen diodan erronka baita.

-Zein da egitea gustatuko litzazukezu ametsetako proba? - Ez dakit egingo dudan, baina Madrileko 100 kilometroen lasterketan parte hartzea gustatuko litzaidake. Nizako (Frantzia) triatloian korritzea ere amets bat izango litzateke. Baina entrenatzeko denbora falta zait.

Elgoibarko Lagun Taldeko txirrindulariak bikain aritu ziren Bergarako lasterketan

Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolako 11 lagunek parte hartu zuten Bergarako txirrindularitza sari nagusian, pasa den apirilaren 24an, eta emaitza oso onak lortu zituzten. Jon Vicente bigarren postuan iritsi zen helmugara lehen urteko infantilen mailan. Iban Gonzalezek, berriz, 3. amaitu zuen Bergarako lasterketa 2. urteko infantilen mailan. Gainerako txirrindulariak ere ongi aritu ziren, baina ez zuten ohorezko posturik lortu.



Garaipenetik hurbil geratu ziren Jon Vicente eta Iban Gonzalez.

ESKOLA KIROLAK

AGENDA (Maiatzak 8, 19. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA (Mintxetan)

- Benjamin mutilak ■
- 10:00 Herri Eskola A - Mendaro A
- 10:30 Pilar A - Ikastola C
- 11:00 Ikastola B - Pilar B
- 11:30 Herri Eskola B - Ikastola A
- Benjamin neskek ■
- 12:00 Ikastola C - Ikastola A
- 12:30 Pilar B - Pilar A

■ Alebin mutilak ■

- 9:45 Mendaro A - Mendaro B
- 10:30 Pilar A - Ikastola B
- 11:15 Pilar B - Herri Eskola

■ Alebin neskek ■

- 12:00 Pilar A - Ikastola C
- 12:45 Ikastola A - Ikastola B

SASKIBALOIA (Ikastolan)

- Infantil neskek ■
- 10:30 Ikastola E - Ikastola A
- 11:15 Ikastola C - Pilar B
- 12:00 Ikastola B - Insti

Ibai Klubeko judokak bikain aritu dira asteburuan jokaturako txapelketetan

6 domina eskuratu dituzte: urrezko bat, 2 zilarrezko eta 3 brontzezko

Andoni Atriok junior mailako Euskadiko lutxa libre olinpikoko txapelketa irabazi zuen pasa den larunbatean, hilak 1, Gazteizko *Abechuko* kiroldegian. 97 kiloz azpiko kategorian parte hartu zuen eta Sevillan jokaturako den Espainiako txapelketarako sailkatzea lortu du. Josu Idiakez, egungo lutxa grekoerromatarreko txapeldu nordea ere Gazteizen izan zen, eta zilarrezko domina irabazi zuen kadete mailan. Baina ez zuen Espainiako Txapelketara sailkatzerik lortu.

Zuriñe Polok Espainiako judo txapelketako sektorean 3. postua lortu zuen igandean, hilak 2, Errenteriako kiroldegian. Infantil mailako lehen urtekoekin lehiatu zen Zuriñe eta aurkakoak baino urduriago aritu zelako ez zuen postu hobea lortu.

Bestalde, Eskolarteko Gipuzkoako judo txapelketan emaitza oso onak eskuratu



Dominak lortu zituzten Ibai Klubeko neskek agertzen dira argazkian.

zituzten Ibai Kirol Elkarteko judoek. Alebin mailan Amaia Zabaleta eta Maria Idiakez zilarrezko dominak irabazi zituzten, 47 eta 52 kiloz azpiko kategorietan hurrenez hurren. Amaitzeko, infantil mailan Mirreia garciak 3. postua eskuratu zuen 48 kg baino gutxiagoko pisuan. Dударik gabe, asteburu osoa izan da Ibaikoentzat eta hemendik aurrera ere emango dute zeresanik.

● Kirol arloko euskarazko materiala sortzeko bekak

Kirol arloko euskarazko materialen eskasia dela-eta "Kirola Euskaraz" planaren Gipuzkoako programaren barruan, Deba bailarako udalek oinarritzko kirol materialak euskaraz sortzeko bekak jarri dituzte martxan. Interesatuak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura (San Martin plaza, 20570-Bergara) bidali beharko dituzte eskabideak maiatzaren 28a baino lehen. Informazio gehiago nahi izanez gero Udal Kirol Patronatura jo (943 74 44 15).

● Haurrentzako igeriketa txapelketa Kiroldegian

Eskola kirola programan izena eman duten hurrek igeriketa txapelketan parte hartzeko aukera izango dute igandean, hilak 9. Benjamin, alebin eta infantil mailako igerilari gaztetxoei zuzendutako txapelketa izango da. Probak Kiroldegiko igerilekuan jokaturako dira goizeko 11:00etan hasita.

Arkaitz Balzola pilotaria Gipuzkoako selekzionarako aukeratu dute

Arkaitz Balzola pilotari elgoibartarrak Gipuzkoako Euskal Pilota Elkartearen deia jaso zuen pasa den apirilaren 14an eta Federazio txapelketan Gipuzkoako ordezkaria izango da. Oraingoz, txapelketa prestatzeko balioko duten partiduetan arituko da eta maila altuena erakusten duten pilotariek jokatuko dituzte partidu ofizialak.



EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 5 - Antoniano 0 (Neskek)
Elgoibar 0 - Antiguoko 12 (Inf. haurrek)
Elgoibar 4 - Antiguoko 1 (Oho. inf.)
Elgoibar 5 - Adavi-Eguzki 1 (1. kad.)
Elgoibar 0 - Urola 5 (1. Jub.)

Areto Futbola

Zur Ta Lur 5 - Cocinas Udarte 3 (1. maila)
Zur Ta Lur 6 - Araba Etxea 2 (Auto.)

Futbitoa

Lojantzi 5 - Los Peñaskos 1

Esku Pilota

LAGUNAK PILOTA TXAPELKETA

M. Portu 18 - I. Rodriguez 12 (Aleb.)
E. Zulaika 18 - O. Txurruka 9 (Aleb.)
U. Larrañaga 10 - J. Larrañaga 18 (Aleb.)
J. Guenetxea 18 - D. Mendibil 16 (Ben. aur.)
J. Agirrebeña 18 - A. Arrese 7 (Ben. aur.)
H. arribillaga 18 - J. Guenetxea 8 (Ben. aur.)
E. Zulaika 18 - M. Elustondo 6 (Aleb.)
U. Ortega 7 - A. Gonzalez 18 (Aleb.)
I. Txurruka 18 - I. Ugalde 8 (Aleb.)
E. Ulazia 18 - O. Arizmendi 14 (Inf.)

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Hernani 3 - Elgoibar 0

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 98/99 JOKALARIA PUNTUAK

1- Aitor Trebiño	32
2- Ibon Muguruza	32
3- Madina	30
4- Gurrutxaga	30
5- Díaz	29
6- Eneko	28
7- G. Lazarobaster	27
8- Txasio	26
9- Iker Leonardo	22
10- Caro	20
11- Beitia	18
12- Igor	16
13- Elkoro	15
14- Loren	13
15- G. Leonardo	10
16- Portu	1
17- Joseba Igartua	1

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 8
16:30 Elgoibar - Ilintza (1.erreg)
18:15 Pedrusko - Urnieta (2.erreg.)
Igandea, 9
17:00 Elgoibar - Urko (L.N. jub.)

Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 9
10:00 Kunta Kinte - P.S.K.
11:00 Lojantzi - Aizkorak Mendibil

Zahartzen ez dena...

Pedro Iturralde, orain dela 70 urte, Nafarroan jaioetako saxofonista da, gaur egun oraindik jotzen aritzen dena, baina gehienoi musikari izugarri honen birak bost axola zaizkizuela argi dudanez, ez zaituztet nekatuko.

Diska hau, orain dela urte eta erdi, nire eskutan erori zenean, berarekin maitemindu nintzen. Flamenkoaren pasioa jazzarekin moldatuz izugarriko fusioa sortzen du. Iturralderen saxoa ahotsaren kaxan oinarriturik dago eta Paco de... kitarrarekin janzten ditu abestiak, saxoarekin edo Paul Grasslen pianoarekin elkarrizketa ahaztezinak eratuz. Erritmo sekzioak izugarri indartzen ditu konposizioak Eric Peterren eta Peer Wyborisen eskutik.

Zer lortzen du Iturraldek diska honekin? Batetik, flamenkoa forma eta egitura aldetik irekitzea, bestetik, jazzak eduki dezakeen elitismoari arima piska bat txertatzea. Ia abesti guztiak doinu herrikoietan oinarrituta daude. Iturraldek berak moldatu zituen 1967an izugarriko konbinaketak lortuz. Flamenkoa sentitzen ez dutenentzat eta jazz ulertzen ez dutenentzat benetan gomendagarria, bi estilo hauek gogoko dituenari, berriz, derrigorrez erostea eskatuko nioke, entzun ez badu behintzat. Diska honek edozein unkitu behar luke... edo ez?

Iban Urizar



'Dia Das Letras Galegas' jaiak zapatuan, hilak 8, hasiko dira

Galiziar kultura eta gastronomia gertutik ezagutzeko aukera izango da

Galiza Etxeak urtero antolatzen dituen 'Dia Das Letras Galegas' jaiak bihar, hilak 8, hasiko dira. Aurtengo jaiak Roberto Blanco Torres poetaren eta kazetariaren omenez antolatu dituzte, bere konpromiso politikoarekin eta idatziekin Galiziar kultura eta demokrazia defendatzeagatik.

Biharko prestatu dituzten ekitaldiak elkarteko bazkideen bazkaria eta Urasandiko Galiza Plazan egingo duten 'Chaves' jaurtiketa izango dira. Jaien egitarauko ekitaldi nagusiak datorren astean, maiatzaren 14an, hasiko dira, aurrera. Jai gunea Herri Eskolako patioan kokatuko da. D' Camara eta Cocktelera orkestek eskainiko dituzten berbenak eta taberna ere bertan izango dira. Zapatu eta igande bitartean Ourensetik etorritako Dragons Vermellos Gaita Taldeak hainbat ekitaldi emango ditu. Maiatzaren 16an, igandea, eta azken urteotan hasitako ohiturari jarraituz, folklore ekitaldi berezia izango da Dragons Vermellos Gaita Taldearen eta Haritz Euskal Dantzari Taldearen eskutik. Elgoibarren hildako Galiziarren aldeko mezaren aurretik Plaza Handian ekitaldi bat eskainiko dute eta meza ostean Herri Eskolako patioan Elgoibarko Txistulari Taldearen laguntza izango dute Haritz Dantza Taldekoek eta Ourenseko Gaita



Dragons Vermellos Gaita Taldekoak Haritz Euskal Dantzari Taldekoekin arituko dira.

Taldeak. Larunbatean, hilak 15, Galiziar gastronomia tipikoaz gozatzeko parada izango da, Herri Eskolako patioan "Pulpo a Feira", lakoi egosia eta haragizko enpandak dastatzeko aukera izango baita. Guztia 'Ribeiro' eta 'Albariño' ardoekin bustita.

"Lorontziaren epaiketa" eta "Etxebizitza konpartitua" antzezlanak Herriko Antzokian hilaren 11n

Mutrikuko institutuko ikasleek bi antzerki lan eskainiko dituzte asteartean, hilak 11, Herriko Antzokian. Debabarreneko Eskolarteko 8. Antzerki Erakusketaren barruan kokatzen dira bi antzerki lan hauek. 10 eta 14 urte bitarteko antzezleek prestatutako lanak dira. Bi antzerkien egilea eta zuzendaria Marisa Martinez da eta bereziki gaztetxoenei zuzenduta daude. Taularatuko duten lehen lana Bululu taldeak eskainiko duen "Lorontziaren epaiketa" izango da. Arratsaldeko 15:00etan hasiko da emanaldia. Auzokoen ar-

teko haserreak oker handiak sor ditzakela erakutsiko digute. Lorontzia nork jaurti duen argitzeko epaitegira joango dira auzokideak. Testigu asko daude, baina guztiak ez dute gauza bera ikusi. Bigarren antzezlanak Akelarre taldeak taularatuko du. "Etxebizitza Konpartitua" izeneko lanean, ikasle pisu batean elkarrekin bizi diren bost neskaen gorabeherak kontatzen dira. Denak desberdinak izan arren primeran konpontzen dira. Batez ere, norbaiten gutuna iristen denean. Bigarren antzezlanak arratsaldeko 16:00etan hasiko da.



Erin

PROIEKTUA



Ion Urbietak



Ion Zubiaurre



Leire Arrizabalaga



Imanol Santos

Leire Arrizabalagak, Imanol Santosek, Ion Urbietak eta Ion Zubiaurrek aste honetan aurkeztu berri dute karrera amaierako proiektua. Gestio Eskolan egin dituzte ikasketak eta orain laurei hel du zaie praktikak egiteko ordua. Leire Elhuyarren ari da, Usurbilen, Imanol datorren astean abiatuko da Londresera Anglocontinentalen praktikak egitera, Ion Urbietak Elgoibarren ari da Sarekin eta Ion Zubiaurre Itzjarren, Norman. Gu beraiekin izan gara proiektuaren nondik norakoen berri izateko asmoz.

- Zertan datza zuen proiektua?

- Azterketa batzuk egin ondoren ikusi zen lan munduan euskarari ez zaiola garrantzi handirik ematen eta enpresetan ez dela euskara erabiltzen. Beraz, hizkuntzaren egoera eta euskara enpresetan nola sartu zitekeen ikusteko azterketak egiten dituzten mugimendu batzuk sortu ziren. Guk arlo honetan oraindik hutsune nabarmena zegoela ikusita, proiektu berri bat egin dugu, enpresetan euskararen inguruko aholkularitza emateko. Iruditzen baitzaigu euskara etxetik edo lagun artetik enpresa mundura zabaldu behar dela.

- Nondik sortu zen proiektu hau egiteko idea?

- Ikasketa amaierako proiektua egiteko ordua heldu zenean ez geneukan idea garbirik. Eskolako zuzendariak, Jose Mari Ulaziak eta inguruko enpresetako arduradunek egindako bilera batean, euskararen inguruko planak bideratzeko kanpotik laguntza behar zela ikusi zuten. Honela guri aipatu ziguten irteera daukan proiektu bat izan zitekeela eta guk aurrera jarraitu genuen.

- Zein pauso jarraitu dituzue?

- Hasieran, arlo honetan lanen bat eginda zegoen aztertzen hasi ginen eta ikusi genuen *Elhuyarrek* edo *Emunek* egin zituztela zenbait lan eta horri buruzko informazioa lortzen aritu ginen. Elgoibarko Izarrak ere, Elgoibarren zegoen egoera soziolinguistikoa ezagutzeko laguntza eman zigun. Behin informazioa lortuta geneukanean guk prestatutako inkestak batzuen bidez Debabarreneko enpresetan euskararen inguruan zegoen

jarrera aztertu genuen. Merkatuak aukera ematen zuela ikusita proiektuarekin aurrera egitea erabaki genuen eta arlo ugari jorratu ditugu. Besteak beste, marketina, kalitatea, atal finantzieroa eta giza baliabideen arloa.

- Enpresa aurrera eramango al duzue?

- Proiektua egin genuenean jendeak esan zigun arlo honetan hutsunea zegoela eta gure proiektua aurrera atera zitekeela, ez baitago enpresa asko honetara dedikatzen denik. Hasieran tentatuta egon ginen, baina orain ez da momentua. Bakoi-tza leku ezberdin batean ari gara praktiketan, gainera, lanean hasi aurretik formazio bat behar dugu. Hala ere, aurrera begira ez dugu baztertzen gure proiektutik enpresa sortzeko aukera.

- Zer iruditu zaizue zailena proiektua egiteko orduan?

- Txarrena hasiera izan zen, arrankatzea. Lehenengo hilabetean ia egunero elkartzen ginen, baina ez genuen lortzen lana aurrera ateratzea. Behin martxa hartutakoan denbora asko sartu behar izan dugu, baina emaitza ikusita oso pozik gaude, uste baino hobe atera da. Proiektua bukatu dugu eta momentu txarrek berehala ahaztu zaizkigu.

- Euskara oztoppa izan al da?

- Lau urteko karrera gaztelaniaz egin dugu eta proiektua euskaraz egitea hasieran asko kostatu zitzaizgun. Baina bukatu dugunerako konturatu gara euskaraz idaztea eta euskara bultzatzeko proiektua egitea motibazio bat izan dela.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak . . . 943 461111
 Txanda hartzeko . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . 943 032800
 Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
 PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10
 Taxi geltokia . . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . 943 742158
 Mendaroko Udala . . 943 756100
 Ongizate zerbitzua . . 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa . . . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa . . 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola . . . 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . 943 740296
 Zaharren Biltokia . . 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola . . . 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre . . . 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea . . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco . . . 943 74 40 73
 El Correo Español . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki irratia . . 943 74 34 74

7 ostirala

19:00 DROGEI BURUZKO ERAKUSKETA
 Antolatzaileak: Udaleko Ongizate saila
 Kultur Etxeko Ganbaran
 Maiatzak 9ra arte

22:30 MARTA CARRASCOREN DANTZA SAIOA
 Izenburua: Blanc d'ombra
 Antolatzailea: Haritz Euskal Dantzari Taldea
 Herriko Antzokian

8 larunbata

12:00 ZAZPIKI IRRATIAREN BATZARRA
 Zazpiki irratiko ganbaran

16:00 EHren BILERA eta EZTABAIDA
 Kultur Etxean

19:30-22:15 ZINEA
 "La delgada linea roja"

22:00 KONTZERTUA
 "Solbenzia Zero" eta "El Trono de Judas"
 Gaztetxean

9 igandea

9:00 HERRI URRATSERA JOATEKO AUTOBUSA
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra
 Irteera: Sigmako zubian

16:30 ZINEA
 "Babe, el cerdito en la ciudad"

19:30-22:15 ZINEA
 "La delgada linea roja"

10 astelehena

22:15 ZINEA
 "La delgada linea roja"

11 asteartea

15:00 DEBABARRENEKO ANTZERKI ERAKUSKETA:
 "Lorontziaren epaiketa"
 Taldea: BUBULU
 "Etxebizitza Konpartitua"
 Taldea: AKELARRE
 Herriko Antzokian

18:00 ERAKUSKETA
 Izenburua: "Sar zaitetz mentura zoragarri honetan"
 Antolatzailea: Elgoibarko Parrokiako Misio Taldea
 Kultur Etxean
 Maiatzaren 14ra arte

13 osteguna

16:30 IKUSENTZUNEZKOA
 Izenburua: "Dieta Mediterranea"
 Antolatzailea: DEBABA euskaltegia
 Kultur Etxean

22:15 ZINE KLUBA
 "Pleasantville"

14 ostirala

18:30 ODOLATERALDIA
 Pedro Migel Urruzuno 8an

22:15 ZINE KLUBA
 "Pleasantville"

ZINEA



Zuzendaria: Terrene Malick.
Antzezleak: Sean Penn, Ben Chaplin, Jim Caviziel.

La delgada linea roja

Bigarren mundu gerran 'C-for-Charlie' konpainiaren helburua japoniarrek Guadalcanaleko irlan duten posizioa eskuratzea da. Konpainiako soldadu bakoitzak bere barne izuei egin behar-ko die aurre ordea, balentriak ez baitu tokirik gudan. Garaipen bakarra bizirik irteeta eta denak elkarrekin etxera itzultzea da.

● **Elgoibarko Parrokiako Misio Taldeak antolatutako erakusketaren inaugurazioa**

Elgoibarko Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, "Sar zaitetz mentura zoragarri honetan" erakusketa inauguratuko da asteartean, hilak 11. Iazko azarotik Euskal Autonomi Erkidegoa herriz-herriz zeharkatzen ari den erakusketa ibiltari honen helburua, Elizbarrutietako Misioak Erakundeak Rwandan, Angolan eta Ekuadorren duen presentziaren eta jardueren berri ematea da. Herri hauen errealitatea eta kristau-komunitateen lekukotasuna azaltzea, alegia. Izan ere, Elizbarrutietako Misioak Erakundeak sortu zeneko 50. urteurrena bete du. Erakusketa honek bilatzen duena, Afrika eta Hegoamerikako behartsuen bizitza erakutsiz, bertakoen bizimodua pittin bat gehiago ezagutzeko eta errealitate horrekin sentibilizatzea da. Tresnak eta lanabesak erabili, janaria prestatu, jantziak probatu, jolastu, dantzatu... egiteko aukera egongo da. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ikustaldi gidatuak egingo dira goizetan, baina edonork bisita dezake erakusketa, asteartetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara.

● **EHren bilera bihar Kultur Etxean**

Bihar, larunbata, hilak 8, arratsaldeko 16:00etan EH alderdiak herri programaren aurkezpena eta eztabaida egingo ditu Kultur Etxean. Datozen 4 urteetan herrian egin nahi dituzten gauzak azalduko dizkiete bertara hurbiltzen direnei. Ondoren, guztiek eztabaida saioan parte hartu ahal izango dute.

● **Odol ateraldia maiatzaren 14an**

Odol Emaleen Elkartetik aditzera eman nahi dute, datorren ostiralean, hilak 14, odol ateraldia izango dela Pedro Miguel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiei eta 18 urtetik gorako herritarrei odola ematea oso garrantzitsua dela gogorarazi nahi diete.

● **"Solbenzia Zero" eta "El Trono de Judas" taldeak Gaztetxean**

Gazte Asanbladak antolatuta, bihar, zapatua (hilak 8), kontzertua izango da Gaztetxean gaueko 22:00etan hasita. Antolatzaileek adierazi digutenez kontzertu berezia izango da, Madalako Gaztetxea itxi zuteneko 8. urteurrena betetzen baita. Omenaldi kontzertua punk-rock musika egiten duten Iruñeako bi taldek emango dute.

● **Marta Carrasco dantzariaren *Blanc d'ombra* ikuskizuna gaur, Herriko Antzokian**

Marta Carrasco dantzari eta koreografo kataluniarrak *Blanc d'ombra* ikuskizuna eskainiko du, gaur, hilak 7, Herriko Antzokian. Saioa, Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatu du, Udalaren Musika eta Dantza Fundazioaren laguntzarekin. Camille Claudel eskultore frantziarraren bizitzaren azken urteetan dago oinarrituta antzerkia eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da.



● **"Dieta Mediterraneo" ikusentzunezkoa Kultur Etxean**

"Dieta Mediterraneo" ikusentzunezkoa izango da ikusgai datorren ostegunean, hilak 13, Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan. DEBABE euskaltegiak Kutxaren laguntzaz antolatutako saioa da eta ikusentzunezkoaren ostean, Ane Miren Urangak eta Maria Arantzazu Lorenzok hitzaldia eskainiko dute. Bi emakumeok Dietetikan diplomatuta daude. Hitzaldiaren helburua aholku batzuk ematea, prestatzeko errazak diren errezeta batzuk erakustea eta bere alderik positiboenak zeintzuk diren azpimarratzea da. Izan ere, dieta mediterranea, askotan gure ohitura zaharretara bueltatzea baino ez da. Saioa arratsaldeko 16:30ean hasiko da eta euskaraz izango da.

T X A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
8	Etxeberría	Zabaleta (Santa Ana kalean)
9	Etxeberría	Zabaleta (Santa Ana kalean)
10	Anduaga	Anduaga
11	Yudego	Yudego
12	Zabaleta	Zabaleta
13	Etxeberría	Zabaleta (Errosario kalean)
14	Escala	Escala

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

9 igandea Zabaleta

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Gary Ross.
 Antzezleak: Toby McGuire, Jeff Daniels, Reese Witherspoon.

Pleasantville

David eta Jennifer iparamerikar gazteak 90. hamarkadan bizi dira. Telebista teknikari baten erruz ordea, 50. hamarkadako fikziozko telesail baten barruan geldituko dira irten ezinik. Telesaila zuri beltzean filmatuta dago eta Daviden eta Jenniferren etorrerak aldaketa bitxiak ekarriko ditu Pleasantville fikziozko herrira.

Etxebizitzak

- ◆ 23 urteko mutil batek gela bat nahi du pisu konpartitu batean. Maiatzaren 16tik uztailearen 31ra bitartean. ☎ 943 74 80 66 (18:00rak arte)
- ◆ Pisua alokatuko genuke irailetik aurrera. Altzariek. 4 neska. ☎ 943 76 23 80 (Naiara)
- ◆ Pisua alokatuko nuke 8 bat hila-beterako. Ahal bada altzariek. ☎ 943 74 09 44
- ◆ Pisua behar dut alokatzeko. Pritsa dauka. Altzariek. Soldata finkoa. ☎ 943 74 08 09
- ◆ Pisua daukat alokatzeko. Akademia edo bulegoa jartzeko proposa. S. Frantzisko kalean, 2. pisuan. Prezio onean. ☎ 943 74 03 71 (Ana M.)
- ◆ Pisua salgai Errosario kalean. ☎ 943 74 17 95
- ◆ Pisu txikia edo buhardila alokatuko nuke. ☎ 943 74 23 63

Bestelakoak

- ◆ Zilarrezko belarritako bat galdu dut San Bartolome kalean. Zirokonitazko perla bat dauka. Bilatzen duenak deitu 943 74 26 78 telefonora (Olga)
- ◆ Seter ingles emea erregalaten dut. ☎ 943 74 29 47
- ◆ Urrezko perladun belarritako bat galdu dut. Mesedez, aurkitu duenak dei dezala zenbaki honetara: 943 74 37 82
- ◆ Baserrira alokatzen da Zaldibarren. Ortu eta korta dauka. Interesatuek helbide honetara jo: Zaldia Plaza 5, Zaldibar (Amaia).
- ◆ Belarritako bat aurkitu dugu Kultur Etxe parean. Bere jabea Udaltzaingora joan daiteke.
- ◆ Lokala traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezio eta egoera onean. ☎ 943 74 25 17

Garajeak

- ◆ Garaje marraduna alokatzen dut Aterpe tabernaren azpian. ☎ 943 74 30 33
- ◆ Olasope industrialdean garaje itxia salgai. ☎ 943 74 31 56
- ◆ Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 03 81
- ◆ Leku Ederren garaje marraduna edo itxia alokatu nahi nuke. ☎ 630 54 99 31

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Kamareroa behar da astegunetarako. ☎ 619 86 30 16 (Oraiko)
- ◆ Esperientziadun kamareroa eta kamarera behar dira 20-30 urte bitartekoak. Elgoibarko tabernarako. ☎ 630 61 76 11
- ◆ Kamarera bat behar da jatetxe batean lan egiteko. 6 hilabeterako. ☎ 943 19 24 12 (20:30etik 22:00era. Kontxi)
- ◆ Esperientziadun kamarero bat behar da. ☎ 943 74 36 02 (10:00-13:00/15:00-19:00)

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. ☎ 610 653452 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Arratsalde txostenak ordenagailuz pasatzeko eta bulegoko gestioak egiteko prest nago. ☎ 943 74 39 67 (Nerea)
- ◆ Bulegoak, tabernak, kristalak... garbitzen espezializatutako neska eskaintzen dira. ☎ 630 59 28 46

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Rover 520 SI autoa salgai. Bi urte ditu. Ekonomikoa. ☎ 610 65 34 52 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Seat Toledo GLX 1.8i SS-AL salgai. ☎ 943 74 24 83
- ◆ Game Gear kontsola saltzen da prezio onean. ☎ 943 74 34 06 (18:00etatik aurrera)
- ◆ Autoa salgai. Super 5, SS-X. Prezio ona. ☎ 943 74 01 34 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Bigarren eskuko ordenagailuak salgai. ☎ 943 76 28 68/76 12 52 (Gauzez)
- ◆ 3 katu persa salgai. ☎ 943 74 30 29 (17:00etatik aurrera. Jairo)
- ◆ Ford Orion 1.6 diesel autoa salgai. Garantizaturia eta egoera onean. ☎ 630 59 28 46 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- ◆ Urtebeteko Seat Ibiza GT TDI 110cv. salgai. Beltz metalizaturia, 16" ko O.Z. Llantak, Bilstein suspentsioa eta Eiba CH muelleak dauzka. ☎ 943 74 16 27

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

Agurrak

- ◆ Zorionak **Luciari**, maiatzaren 6an 11 urte bete zituelako. Lagun misteriotsuen partez.
- ◆ Zorionak **Ainhoa Doradori**, hilaren 11an 11 urte bete zituelako. Cristinaren partez.
- ◆ Zorionak **Andoni Lersundiri**, maiatzaren 3an urteak bete zituelako. Leireren, Miriamen eta Aitorren partez.
- ◆ Zorionak **Nora Hadiri**, maiatzaren 4an 7 urte bete zituelako. Itsaoren, Ainhoaren eta Alazneren partez. Ondo pasa eguna.
- ◆ Zorionak **Jose Luis Escudorri**, maiatzaren 3an urteak bete zituelako. Familia guztiaren eta bereziki Alazneren partez.
- ◆ Zorionak **Elisabet Zabalari**, maiatzaren 8an urteak beteko dituelako. 4. mailako eta bereziki Asierren, Iriaren eta Idoiaren partez.
- ◆ Zorionak **tia Mertxe**, igandean, etxeko hiru txikiaren partez.
- ◆ Zorionak **Maneri**, maiatzaren 4an urteak bete zituelako. Maialenen, Inigoren eta etxekoekin partez.
- ◆ Zorionak **Lucia Dieguezi**, maiatzaren 6an 11 urte bete zituelako. Bere gurasoen eta anaiaren partez.



◆ Zorionak **Nagoreri**, gaur 7 urte bete dituelako. Familiaren partez.



◆ Zorionak **Eider Rodrigezi**, apirilaren 30ean 2 urte bete zituelako. Gurasoen eta ahizparen partez.



◆ Dagoeneko urte dexente pasa dituzue elkarren ondoan, eta bihar, beste bat beteko duzue. Zorionak **Antonio eta Maria Luisa**, eta ondo pasa biharko eguna. Zorionak **amamari** ere, bihar urteak beteko dituelako. Etxekoekin eta batez ere Dorletaren, Ikerren eta Eiderren partez.



◆ Zorionak **Mikel Anakeri**, maiatzaren 5ean 7 urte bete zituelako Gurasoen, etxekoekin eta bereziki lehengusu Jonen partez.



◆ Mila kilo zorion **amarentzat eta Imanolentzat**, maiatzaren 7an eta 10 ean urtebetetze eguna dutelako. Etxeko guztien eta bereziki Kimeztzen partez.



◆ Zorionak **Aneri**, maiatzaren 10ean 5 urte beteko dituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.



◆ Urte asko pasa dira, baina pasa daitezela beste horrenbeste gehiago. Zorionak zure familiaren partez.



◆ Zorionak **amama Pakitari** maiatzaren 8an urteak beteko dituelako. Baita **Andreari** ere, maiatzaren 3an 8 urte bete zituelako. Familia guztiaren partez.



◆ Zorionak **Naia Membriellerari**, maiatzaren 9an 7 urte beteko dituelako. Belarriko tirakada handi bat gurasoen eta Ion anaiaren partez.



◆ Zorionak **Maialeni**, igandean Lehen Jai-nartzea egingo dutelako. Etxekoekin partez.



◆ Zorionak **Inigori**, larunbatean 29 urte beteko dituelako. Inakiren, Mamenen eta Ion partez. Tragoa noizko?

BARREN INTERNETen

Atzerrian bizi bazara, asko bidaiatzen baduzu, edo Elgoibarko berri jakin nahi izanez gero...

Aurrerantzean buzoian ezezik

zure ordenagailuko pantailan jaso ahal izango duzu **BARREN**.

Helbide informatikoa:
www.ihardun.com/barren



HURBIL S.M.
San Inazio, 4
Tel. 943 74 08 50

*Informa zaituz
gurean!*



Softlan
desarrollos informáticos
análisis & programación
Antonio Arrillaga, 1
Tel. 943 74 81 05

egitaraua

MAIATZAK 14, OSTIRALA

19:00 Jaien hasiera. Txafigu jaurtiketa eta Galiziako jakien dastaketa.

22:30 D'Camara taldearen saioa.

MAIATZAK 15, LARUNBATA

10:30 Txafigu jaurtiketa.

12:00 *Dragons Vermellos Gaita Taldearen* kalejira.

13:30 *Cocktelera* taldea.

18:00 Galiziako jaki tipikoen dastaketa Herri Eskolan.

19:30 *Dragons Vermellos Taldearen* kalejira Elgoibarko kaleetan. Ondoren Plaza Handian emanaldia.

20:00 *Cocktelera* taldea.

23:00 *Cocktelera* taldearekin berbena .

MAIATZAK 16, IGANDEA

11:30 *Udal Txistulari Taldearen* eta *Dragons Vermellos Gaita Taldearen* diana.

12:15 *Haritz Dantzari Taldekoen* ongi-etorria *Gaita Taldeari* Plaza Handian.

12:30 Meza, hildako galiziar guztien omenez.

13:15 *Dragons Vermellosen*, *Haritz Dantzari Taldearen* eta *Udal Txistulari Taldearen* saioa Herri Eskolan.

14:30 Bazkaria Galiza Etxean herriko agintariekin.

18:00 *Dragons Vermellos* taldearen agurra.

DIA DAS LETRAS GALEGAS



*Galiza etxeko zuzendaritzak
jaietan parte hartzeko gonbitea laza-
tu nahi die
elgoibartar guztiei.*



GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37

ARROZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 16
☎ 943 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ 943 74 03 96

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 943 74 30 94

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61
☎ 689 04 92 06

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 608 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi, 59-61
☎ 943 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 608 14 30 40

ALFONBRAK TAPIZERIAK

LAU

San Frantzisko, 42
☎ 943 74 18 89
☎ 943 74 06 73

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 689 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 607 41 78 67